

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2012KO URRIAREN 19AN EGINIKO OHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA

Errenteriako udaletxean, 2012ko urriaren 19ko goizeko 08:10ak zirela, lehenengo deialdian eta Julen Mendoza Perez alkate jaunaren (O.E. BILDU) esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Luis M^a Diez Gabilondo
- Irun Balenciaga Arrese
- Garazi Lopez de Echezarreta Auzmendi
- Jon Txasko Orgilles. (Guztiak O.E. BILDU taldekoak)
- Jose Manuel Ferradas Freijo (EE)

Ez da etorri, baina ezinetorria adierazi du, Miren Alazne Korta Zulaika(O.E. BILDU)

Bertan dago eta egintza fedatzen du Begoña Bueno Barranco idazkariordeak.

1. Gobernu Batzarrak 2012ko irailaren 21ean eginiko aktaren irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.

Idazkariak 2012ko irailaren 21ean eginiko ohiko bilkurari dagokion akta irakurri ondoren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Onartzea 2012ko irailaren 21ean eginiko ohiko bilkurari dagokion akt.

2.- "Herriko hainbat kale asfaltatzeko proiektuan - 2012 jasotako obrak" adjudikatzea.

2012ko uztailaren 27ko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, espedientea ireki zen "Herriko hainbat kale asfaltatzeko proiektuan - 2012 sartutako obrak" kontratatzeke, prozedura negoziatuaren bitartez.

Baliozko epean bi (2) proposamen aurkeztu dira, hain zuzen ere "EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA, S.L." eta "GUIPASA, S.A." .

2012ko irailaren 10an 2. sobrea irekitzeko ekitaldia egin zen.

2012ko urriaren 1eko Kontratazio Mahaiaren akordioak proposatu zuen Iñaki Pérez de Albeniz Campos Jauna, "EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA, S.L."-ren izenean diharduena, kontratuaren esleipenduna izatea, interes publikoentzako eskaintzarik onuragarriena zelako.

2012ko urriaren 2ko Alkatetzaren Ebazpen bidez, Iñaki Pérez de Albéniz Campos-ri eskatu zitzaion, "EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA, S.L." enpresaren ordezkariaren, "Herriko hainbat kale asfaltatzeko proiektuan - 2012 sartutako obrak" kontraturako proposatutako adjudikazio-hartzailea denez, hamar (10) laneguneko epean lizitazioa arautzen duen baldintza-agiriaren 11. Klausulan adierazitako dokumentazioa aurkez zezan.

Interesatuak 2012ko urriaren 10ean eskaturiko dokumentazioa ekarri du, baita 6.694,75 euroko zenbateko behin betiko bermea ere.

Alkateak proposatuta.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

E R A B A K I D U

1. Iñaki Pérez de Albéniz Campos jaunari, "EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA, S.L."-ren izenean diharduenari, "Herriko hainbat kale asfaltatzeko proiektuan - 2012, jasotako obrak" izeneko kontratua **ESLEITZEA**, 133.895 euroko zenbatekoarekin (gehi BEZa), betiere onartutako Proiektua eta lizitazioa arautu duten baldintza ekonomiko-administratiboaren agiriei eta espedientean jasota dagoen esleipendunaren eskaintzari jarraiki. (Zorpeko zk.a: A-1100-2012)

2.- JAKINARAZTEA adjudikazio- hartzaile izan ez diren lizitatzailerak guztiei.

3.- Esleipendunari **eskatzea** 10 eguneko epean, esleipenaren jakinarazpena egin denetik kontatzen hasita, Udaletxera etortzeko kontratua sinatu dadin administrazio dokumentuan.

4.- Kontratuaren esleipena **argitaratzea** Errenteriako udalaren kontratatzailearen profilean iragarkia ipinita.

5. Alkatea espresuki **ahalmentzea** administrazio kontratua sinatzeko.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 08:25 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____ zenbakitik _____ ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.